

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Neska oñatiarrak Urbixa aldian

Urbixara fateko ohitturia aspalditik dakogu zuztarta txantxiarrok. Eta ez mendizalien artian bakarrik. **Era askotako herritarrek** igoten euen eta daue urtian zihar Aizkorripeko zelai eder eta nasai hareittara: eskoletako umiak maixu-maistekin, gazte-kuadrillak, familia osuak, edade eta taixo desbardiñetako pertsonak. **Sasue batian udabarritik udazkenera** bittarteko hillabetietan ibiltzen zan jenterik gehixena; negu partian ixa iñobez, artzaiñak euren artaldiakin beheko larratara jaisten ziralako. **Orain**, ostera, **neguan be makiñatxo bat** inguraketa da goialde hareittara, **edurra egitten dauenian bereziki**. Fondia bera be ixa urte osuan egoten da zabalik.

Gaurko honetan **neska gazte talde** baten argazkixa dakartzuegu. Samur igarten da non atarata dagueen, atzian **Urbixako fondia** ikusten dalako eta urrintxuago **ermittia**. Neskok aldian doian soiñeko eta kapelairi erreparau ezkerro, somauko dozue noizkua dan, ezta? Gerra osteko **1940 hamarkadako erdi ingurukua** esango neuke nik. **Protagonistak oñatiarrak** zirala jarri dogu izenburuan; egixa esateko, **batzuek hemendik kanpora** eukain euren **jatorrixa, baiña** garai haretan **gure herrixan bizi ziran**.

Goittik behera eta ezkerretik eskumara horra gaztien **izen-abizenak**:

Goixeneko illaran: **Pilar Altuna**, Kale Barriko estankokua; **Kontxi Rodriguez**, inprentakua; eta **Ines Maiztegi**, Natalio-neko txokolaterixakua.

Bigarren illaran: **Mari Karmen Lizaur**, Kale Zaharreko arkitektuenekua; **Karmen Gereta**, Kale Barriko bodegakua; **Nieves Madina**, Atzeko kaleko sesterixakua; eta ezkiñan zutik **Ines Urkiaga Luzar**, Kale Zaharreko Luzarrenekua.

Hirugarren illaran: **Mari Tere Arregi**, Kale Zaharreko Onena txokolaterixakua; **Mertxe Urteaga** beasaindarra, benedikti-netan bizi zana; **Loli [?]** **Urkiaga Luzar**, Inesen ahizpia; eta **Agustina Tina Ezenarro**, Kale Zaharrekoa, Ino Ezenaroren illobia.

Beheko illaran: **Mari Rodriguez**, inprentakua, Kontxiren ahizpia; **Milagros Madinazkoitia**, Kale Zaharrekoa; **Maritxu Zelaia [?]**, Zañartuko Upaingua; **Mari Sol Gereka**, Kale Zaharreko txokolaterixakua; eta pittin bat aurrerago **Maria Angeles Goñi**, Kale Barriko denda-tabernakua.

Fotografixia Tere Arregiren bidez eskuratu dogu; Tereri, berriz, Tina Ezenarrok bialdu otsala emuten dau. Argibidetarako Milagros Madinazkoitia eta Asun Arzuagak lagundu doskue, batez be; bittartekari-lanetan Txaro Anduaga, Iñigo Arregi, Iñazio Arregi eta Myrian Etxegoienek. Milla esker danoiri!